

MENDEBALDEKO SAHARA

Zioa

Espainiako Gobernuak errotik aldatu du bere jarrera Mendebaldeko Saharako gatazkari dagokionez, Nazio Batuen ebazpenak eta Nazioarteko Zuzenbidea bera ere urratuz. Halaber Espainiako Estatuak, arrazoi historiko, politiko eta juridikoengatik, erantzukizun handia dauka bizi-bizi dirauen Mendebaldeko Saharako gatazka politikoan.

Izan ere, 1975an, Hagako Nazioarteko Auzitegiak legez kanpoko jo zituen “Madrilgo Akordioak”. Ondorioz, Marokok ez dauka subiranotasunik Mendebaldeko Saharan, eta okupazioa legez kanpoko da erabat.

Orobat Nazio Batuen Erakundeak Espainiako Gobernuari etengabe erreklamatu dio potentzia kolonial administratzailea izanik –“de iure” ere bai Auzitegi Nazionalak 2014an ebatzi zuen autoaz geroztik–, ahalegindu dadila behar adina Saharako Herriak bere autodeterminazio eskubidea erabil dezan erreferendumaren bidez.

Komunikabide batzuen arabera, Pedro Sanchez Espainiako Gobernuako presidentek gutun bat bidali dio Mohamed VI erregeari, Marokok 2007an Saharako egin zuen autonomia erregimenaren proposamena gatazka konpontzeko proposamenik serioena, errealistena eta sinesgarriena dela esanez. Jose Manuel Albares, Atzerri, Europar Batasuneko eta Lankidetzako ministroak berak informazio hori baieztatu du.

Abdulah Arabi, Fronte Polisarioak Espainian duen ordezkariak adierazi duenez, Espainiako Gobernuak urteak daramatza Marokori etengabe atsegin ematen saiatzen, bere ustez deskolonizatzeko dagoen lurralde bateko potentzia administratzaile gisa ez dagokion anbiguotasunarekin jokatur. Arabik berretsi du erreferenduma egin behar dela saharar herriak erabaki dezan.

Horregatik guztiagatik, Zaldibiako Udalak:

1.- Bere kezka adierazi nahi du Espainiako Gobernuak babesa ematen diolako Marokoko Erresumak Sahararen autonomiari buruz egindako proposamenari, erabat salatzen du Espainiako Gobernuko agintariak Mendebaldeko Saharako gatazka politikoaren inguruan jarrera errotik aldatu izana, historian inoiz ez bezala. Aldaketa honek esan nahi du Marokok Mendebaldeko Sahara erabat bereganatzeko dituen asmo eta anbizioekin bat egiten duela Espainiako Gobernuak.

2.- Espainiako Estatuak lotura historiko eta afektiboa duela Mendebaldeko Saharako gatazka politikoan, eta, horregatik, Espainiako Gobernuari eskatzen dio Nazio Batuen Erakundeetan, EBn eta gainerako nazioarteko erakundeetan modu aktiboan lagundu eta jardun dezala gatazkaren konponbidearen alde, Nazioarteko Zuzenbidearen eta NBEren ebazpenen arabera



beti ere. Ildo horretan, Gobernuari eskatzen dio babestu ditzala Staffan de Mistura NBeko ordezkari aldean arteko negoziazio-prozesu politikoari berriro ekiteko egindako ahaleginak.

3.- Ezinbestekoa dela konponbide politiko justu, iraunkor eta elkarrekiko onargarri batetara iristea, Nazio Batuen Gutunaren printzipio eta asmoen esparruan, Nazio Batuen ebazpenekin bat etorritik, alde guztien erantzukizuna eskatuz, ikuspegi aldeaniztun eta eraikitzailea duen konponbidea helburu eta Saharako Herriaren borondatea askatasun osoz adierazteko eskubidea gauzatuz amaitu beharko litzatekeena.

4.- Mendebaldeko Sahararen auziari irtenbide politikoa ematea funtsezkoa dela adierazten du, Magrebeko herrialdeen arteko eskualde-lankidetzarako eta eskualdearen egonkortasuna, segurtasuna eta oparotasuna bermatzeko. Aldi berean inplikaturako alde guztiei eskatzen die uko egiteko probokaziozko edo indarrezko edozein ekintzari; eta konpromisoa hartzeko elkarrizketa eta negoziazio prozesuarekin jarraitzeko, Mendebaldeko Saharan Erreferendumerako Nazio Batuen Misioarekin (MINURSO) hitzartutako akordioak erabat errespetatuz.

2022ko apirilaren 28an

